Alde Zaharreko Osasun Etxearen aldeko komunikatua

Gaur, Alde Zaharreko bizilagunak Conde Olivetora etorri gara osasunaren arloan ardurak dituzten eta erabakiak hartzen ditzuten pertsonek argi eta garbi entzun gaitzaten.

Nafarroako Osasun plataformaren aldarrikapenekin bat egiten dugu, baina gaur, bereziki, gure Osasun Etxearen irisgarritasun arazoez hitz egin nahi dugu.

Eskatzen dugu irisgarritasun mugatua duten pertsonek Osasun Etxean sartzeko arazorik ez izatea.

Gainera, lan horiek eskatuko lukete beheko solairuan aldaketak egitea eta erabilera anitzeko gela berreskuratuko genuke. Egun, covid frogak egiteko erabiltzen dena. Guzti hori oso inbertsio txikiarekin.

Iruñeko udalbatzak aho batez onartu zuen Osasun Etxearen aldeko ekimen bat, 475 instantzia entregatu ditugu gai honekin…

Zeren zain daude lanekin hasteko?

Iruñean, 2021ko maiatzaren 12an

606 24 81 24 948 22 77 87 proyectoazekimena.az@gmail.com Aldapa Kalea, 3. 31001